

5 ostirala

22:15ean.- Antzerki Garaia: "Arrastoa". Usurbe Antzokian.

6 larunbata

16:00etan.- Xake partida : Alfíl A – La Salle A. Ezkiagako Ludotekan. Antolatzailea: Alfíl elkarte.

16:00etan.- Txirrindularitza. XXVIII USURBE PROBA. Antolatzailea: Loinatz Txirrindularitza Elkartea.

17:00etan.- Haur zinea: "Igelak eta zapoak". Usurbe Antzokian.

12 ostirala

22:30ean.- Neguko VIII. Bertsopaper sari banaketa saioa. Arrano kultur elkarteak antolatuta. Usurbe Antzokian.

13 larunbata

16:30ean.- Txirrindularitza: Infantil eta alebinentzat Beasain saria. Antolatzailea: Loinatz Txirrindularitza Elkartea.

17:00etan.- Haurren dantza emanaldia.

19:00etan.- Haurren dantza emanaldia. Aurtzaka dantza taldeak antolatuta. Usurbe Antzokian.

14 igandea

08:00etan.- Mendi irteera: Ibilaldi neurtua. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

17 asteazkena

17:30ean.- Ipuin kontaketa: "Munduko amarik onena". Udal Bibliotekan.

18 osteguna

09:30ean.- Haur zinea eskola umeentzat: "Karamuk". Usurbe Antzokian.

19 ostirala

17:00etan.- Haur antzerkia: "Ali, haren amona eta alfonbra hegalaria". Usurbe Antzokian. Kutxa Fundazioak babestuta.

20 larunbata

16:00etan.- Xake partida : Alfíl A – Arrasate- San Andres B. Ezkiagako Ludotekan. Antolatzailea: Alfíl elkarte.

16:00etan.- Haur zinea: "Txori urdin". Usurbe Antzokian.

25 osteguna

12:45ean.- Antzerki amateurra ikasleentzat, Txindoki-Alkartasuna Institutoko ikasleek. Usurbe Antzokian.

26 ostirala

11:00etan.- Antzerki amateurra ikasleentzat.
19:00etan.- Antzerki amateurra: Publiko irekiarentzat. Txindoki-Alkartasuna Institutoko ikasleek. Usurbe Antzokian.

27 larunbata

17:00etan.- Haur zinea: Glup! Zabor bizidunak. Usurbe Antzokian.

20:00etan.- Kontzertua: Makulu ken eta Bizardunak. Gernika pasalekuko frontoian. Antolatzailea: Sustraiez blai.

28 igandea

17:00etan.- Mendi irteera: La ruta de las bordas (Arbizu). Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea.

4 osteguna

21:00etan.- "Seraphine" filmaren emanaldia. Usurbe Antzokian.

11 osteguna

21:00etan.- "Genova" filmaren emanaldia. Usurbe Antzokian.

ERAKUSKETAK

Lanegunetan: 19:00-21:00 Jaiegunetan: 12:00-14:00 / 19:00-21:00

4tik 14ra

Argazki erakusketa: Lur-zientziak Urdaibain. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan. Landarlan ingurumen taldeak hitzaldi zikloa antolatu du. (Martxoak 1, 8 eta 15ean. 19:00etan Udal Batzar aretoan).

18tik 28ra

Erakusketa: XI. Mendiko Argazki Lehiaketara aurkeztutako lanak. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan. Antolatzailea: Argizpi argazkizale elkarte.

Abierto el plazo de ayudas para el pago de tasas municipales

El plazo para solicitar ayudas para el pago de las tasas municipales correspondientes al 2009 –las referentes al agua, alcantarillado y polideportivo– acabará a finales de este mes de marzo. Hay que presentar la solicitud en la Oficina de Atención al Ciudadano (horario: 08:30 - 13:30).



Este mes se publicarán las bases para los distintos programas de cooperación

Martxoan argitaratuko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Beasaingo Udalak martxan dituen lankidetzako lau programetako oinarriak.

- Garatze bidean dauden herrialdeekin lankidetzako proiektuak.
- Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak.
- Sentiberatze proiektuak eta garatze bidean dauden edo zorritarren bat jasan duten herrialdeetatik datozen haurren denboraldirako harrera programak.
- Beasaingo gazte laguntzaileentzako bekak.

Informazio gehiago 943 02 80 75 telefonoan

Emakumea eta lan mundua

"Lanak askeago egiten gaitu"

6

EHUNMILAK
Aurrera doa inoiz Euskal Herrian antolatu den mendi probarik luzeena

8

IDAZLEHIAKETA
Literatur zaletasuna agerian utzi dute Beasaingo gaztetxoek

11

APARKALEKUA ZUMADIN
Kamioilariak ez dute euren ibilgailua aparkatzeko arazorik izango hemendik aurrera



1846

1846ko martxoaren 9an, duela 164 urte, Jose Martin Arana jaio zen. Herriko alkatea izan zen 1876tik 1878ra eta 1899tik 1902ra. Berari zor zaio Bide-luze kalean bi pilotaleku zoragarri eraiki izana. Bata eskuz jokatzeko, bestea, berriz, erreboterako, puntarako eta erremonterako.

1920

CAF enpresa 1917an sortu zen Beasainen. Martxoaren 4an 93 urte beteko dira. Ondoko argazkia 1920 ingurukoa da.

1950

1996ko martxoaren 18an 94 urte beteko dira Bideluze kaleari Jose Martin Arana izena jarri ziotela. Argazki hau Alzurik orain 60 bat urte ateratakoa da.

Beasain iruditzen...

Atzera begiratuz gero, gure aurrekoak ere geldirik ez zirela egon ikusten da. Hemen aipatzen diren datak adierazgarriak dira.



Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



Martxoaren 8a Emakumeen Eguna. Eguna gehiago behar genituzke ospatu gabe, normaltasunez, 'Emakumeen eguna', eta kontrastea kontrastean ospatzeari ere utzi beharko genioke noizbait, normaltasun horren seinale. Eguna hori lehenbailehen iritsi dadin al-dizkari ale honetan bereziki emakumearen presentzia eta beharra azpimarratu nahi dira, beraien aldeko jarrera indartuz.

Aitortu beharrekoa da noski, eta nahiz bide luzea geratzen den, benetako berdintasunaren alde orain arte emaniko pausoak ez direla hutsalak izan. Horren adibide dira ale honetan irakurri ditzakezun hainbat testigantza: Ikasketetan aurrera egin dutenak, lan munduan punta-puntan daudenak, bere lantokia ere sortu dutenak...

Ezkerrean dituzun argazkiak ere emango dizu zer pentsatua. Urteurren garrantzitsuak, herriaren

garapenean oinarri sendoak jarri zituztenenak, elkarlanaren adibide guztiak ere.

ONGIZATE SAILA deika dabil lankidetzaren programetan parte hartzeko. Haitiri begira herritar askok bere eskuzabaltasuna azaldu du. Udalak 132.000€ aurreikusitako 2010ean lankidetzaren programa hauek burutzeko.

EHUNMILAK mendi martxaren berri ere aurkituko duzu. Ezustean harrapatu baninduen ere horrelako egitasmo berezi eta erraldoiak, antolatzaile taldearekin hainbat bilera egin ondoren sinesita nago arrakasta handia lortuko duen frogaz izango dela. Arrakasta horren parte da, noski, frogaz gerta dadin ehundaka bolondresen asteroko partehartzea. Elkarlan hori zinez txalotu nahi nuke, nere babes osoa eskeiniz. Bestalde, aukera paregabea izango da kanpotar askorentzat Beasain, Goierri, Urola eta Tolosaldea bertatik ezagutzeko.

MARTXOAREN 8, Emakumearen Eguna

8 DE MARZO. Día de la mujer. Aunque se han dado pasos significativos a favor de los derechos de las mujeres, todavía, por desgracia, tenemos que señalar en el calendario un día ex profeso para recordar la situación de desigualdad de la mujer en nuestra sociedad. Espero que algún día, más pronto que tarde, se suprima este día del calendario como señal de normalización de la situación de la mujer. En este sentido los testimonios de las mujeres que aparecen en la revista muestran la incorporación de la mujer al mundo del trabajo, de la dirección y creación de empresas.

BIENESTAR SOCIAL. El Servicio municipal de Bienestar Social ha convocado ayudas para las Organizaciones No Gubernamentales que realizan proyectos de Cooperación y Desarrollo en países del Tercer Mundo. La respuesta del pueblo de Beasain para ayudar al pueblo de Haití ha sido ejemplar y nos enseña la disposición de muchos cooperantes beasaindarras para seguir trabajando a favor de la ayuda humanitaria. El ayuntamiento

también contribuye con 132.000€ en 2010 para apoyar esas iniciativas.

EHUNMILAK, prueba de 100 millas por los montes de nuestro entorno. Un grupo entusiasta de las pruebas de montaña está preparando esta prueba deportiva. Los organizadores han conseguido reunir a un numeroso grupo de voluntarios del municipio y comarcas que están trabajando con tenacidad y empeño para que a mediados de Julio se celebre la prueba. Será también una oportunidad para que los que acudan con motivo del evento conozcan Beasain, Goierri, Urola y Tolosaldea. El ayuntamiento felicita a los organizadores y les ha ofrecido su colaboración.

Kaleak oinezkoentzat jartzea merkataritzari lagungarri zaiola irizten al diozu?



Lucio Cabezas.

"Yo lo veo bien. Estoy a favor de las reformas. Claro, las obras molestan, si haces algo en casa pasa lo mismo. Pero será mucho mejor así. Beasain, como capital del Goierri, se merece tener las calles cuidadas. Yo no conduzco pero sí que ando bastante en coche con mis hijos y tampoco veo desventajas. Habrá menos humo y más calidad de vida. Lo cierto es que no he escuchado a nadie hablar en contra de la peatonalización hasta ahora. Creo que la gente está contenta".



Yolanda Soto.
YS harriak eta osagarriak

"Niri, merkataritza moduan, oso ondo datorkit Kale Nagusia oinezkoentzat jartzea, baina hori benetan hala izatea eskatuko nuke, errespetatzea, zeren hormigoia jartzekoan irekita egon zen kalea eta auto mordoa ibili zen. Pergoletako hiribidea ere teoriar oinezkoentzat da baina ez da errespetatzen. Denak jar dezatela oinezkoentzat, zeren aparkatzen utziko zutela ere entzun nuen eta niri ez dit batere onik egiten erakuslehoaren aurrean auto bat aparkatuta egoteak".



Juan Mari Tolosa.

"Filosofia gisa, kaleak oinezkoentzat jartzearen aldekoa naiz ni, kasu jakin batzuetan justifikatuta egon ez arren. Ibilgailuak kentzea, gainera, normalki mesedegarria izaten da merkatarientzat eta ez dakit zergatik sarritan mesfidati agertzen diren. Jendea gehiago geratuko da erakuslehoetan eta beraz, gehiago salduko dute. Hiritar bezala, berriz, lasaia ibiliko gara kalean, batik bat, haur txikiak dituztenak. Hobe-rako da. Noski, arazo txiki batzuk ere sor ditzake, agian, larrialdi batean irteera zaildu lezake".



Cristina Ecenarro.
Óptica Nagusi

"Me parece que la obra en sí es un follón; eso sí, a los obreros se les ve trabajar que da gusto. Ésa es la parte positiva. Y la negativa el embrollo que supone. Yo, al principio, no estaba muy conforme con la peatonalización porque la gente que viene de los pueblos no nos tendrá tan accesibles como antes. Tenemos aparcamientos pero la sensación de la gente es que están lejos. Además, en el caso de Bernedo, a las chicas les da miedo de noche. Vendrá más gente a pasear pero el tema del aparcamiento me da miedo".

Emakumeak lan munduan

Está claro. Con la incorporación al mundo laboral, la mujer ha ganado en libertad y en independencia económica, aunque a veces tiene que hacer malabarismos para conciliar la vida familiar y laboral. Hemos estado con seis de ellas para preguntarles cómo lo llevan.



Leire
Artola

Beasaingo Nafarroako Rural Kutzako zuzendaria da duela sei hilabetetik. 5 eta 3 urteko seme-alabak ditu.

“¿Porqué las mujeres nos preocupamos más de la casa, porque el hombre no puede o porque creemos que es nuestro deber?”

“Emakumeok lan munduan gizonezkoek duten maila hartu dugu. Aldiz, etxean gizonezkoak oro har ez dira iritsi emakumearen maila hartzera. Orain, hori zergatik da? Ezin dutelako edo uste dugulako gure betebeharra dela? Banketxeetan jendeari arreta eskaintzen edo zuzendaritzan emakumeak ikusten dira. Hortik gora, ordea, ez dut uste hainbeste emakume dagoenik. Emakumea lan munduan sartzeak ere badu bere alde txarra; lanean sartzen ditugun orduak nonbaitetik kendu behar eta zoritarrez familiari klentzen dizkiogu. Nire kasuan herrian bertan lan egiteak asko erraztu dit familiaren eta lanaren uztartzea”.



Ana
Crespo

Tximeleta garbiketa enpresako gerentea da. Duela bost urte sortu zuen eta denetarik egitea tokatzen zaio. Garbitu, bezeroak bisitatu, aurrekontuak egin, langileak kontratatu.

“Azkenengo hilabete hauetan, lehen ez bezala, gizonezkoak etortzen zaizkit lan eske”

“Hace cinco años que empecé con esta actividad, al principio fue duro y difícil, pero había que conseguir clientes y que estos me contrataran. Empecé haciendo pequeños trabajos de limpiezas, de portales, fin de obra, generales... poco a poco he ido consiguiendo la confianza de los clientes y una vez que han conocido cómo trabajamos están encantados y reconocen la labor bien hecha. En mi empresa de momento trabajamos solo mujeres, esto no es porque sea un trabajo “femenino”, sino porque desde el comienzo sólo eran mujeres las que me pedían trabajo, sobre todo, mujeres de otros países. Desde que comenzó la crisis la cosa fue cambiando ya que comenzaron a enviar curriculums mujeres de aquí que se quedaban en paro y en los últimos seis meses también vienen hombres a pedirme trabajo. La limpieza es un trabajo duro, como muchos otros. Creo que está poco reconocido para lo necesario que es para la calidad de vida de todos. ¿Que si me siento realizada con este trabajo? Pues sí, date cuenta que hago que funcione todo el entramado de la empresa y que genere empleo, esto es muy gratificante, ahora bien... lo que más me llena es tener una buena relación con mis compañeras. Eso sí, esto no sale solo, hay que trabajarlo día a día, sólo así funcionan bien las cosas”.



Eider
Lopetegui

Orkli enpresako mantenimendu taldeko kidea da. 15 dira lan taldean eta bera da neska bakarra.

“Tanto los chicos como las chicas hemos salido de clase con la misma formación”

“Orkli emakumeentzat sortu zen bere garaian, eta emakume askok egiten dute lan. Nik, ordea, mantenimenduan egiten dut lan, 15 gara taldean eta ni naiz emakume bakarra. Historikoki lan hau gizonezkoek atxikitu izan zaie. Kanpotik enpresak etortzen direnean, batzuetan, ia-ia eskuak burura eramaten dituzte... Diskriminazio puntu bat badago oraindik, batik bat, 50 urtetik gorako gizonezkoetan. Egoskorren bat geratzen da oraindik, baina nik beti gauza bera esaten dut: bai mutilak, bai neskek formakuntza berarekin atera gara klasetik. Baina beti egoten da norbait pentsatzen duena “eta nik ezin baldin badut egin, nola egingo du neska gazte honek?”. Lanak askatasuna eman digu eta askeago garen unetik, irabazten atera gara. Gainera, lan batean gauzak ondo egin eta gora jo ahal izateak ere pertsonalki betetzen zaitu”.



Haizea
Alberdi

Indar enpresan egiten du lan. Delineatzailea da. Ez du seme-alabarik oraindik.

“Si eres mujer, el mecánico nunca te da explicaciones”

“Nik bulegoan ez dut gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun hori somatzen. Norberak erakutsi behar du balio duela eta errespetoa irabazi egin behar da. Mentalitatea aldatzen ari da. Lanean baino gehiago antzematen dut tailerrera kotxea konpontzera eramandakoan. Emakumea bazara, mekanikoak ez dizu inoiz azalpenik ematen. “Hau zuen edo beste hori zuen”. Aldiz, aitarekin edo bikotarekin joanez gero, haiei sekulako esplikazioa ematen diete. Nik, askotan joatearen poderioz, azkenik lortu dut hori ere! Baina askotan genero kontua baino gehiago rolen kontua izaten dela esango nuke. Adibidez, garbiketa enpresetan denak emakumezkoak izan ohi dira. Rol horiekin puskatzea da kontua.

Uste dut aurreko belaunaldiekin alderatuz, independentzian irabazi dugula. Zenbat emakume dago senarra aguantatu beharrean ekonomikoki beste erremediorik ez dutelako? Elkarrizketetan eta galdetzen omen dute haurdun geratzeko asmorik duten edo bikoterik ba ote duten. Azken galdera hau egitea, adibidez lanak bidaiatzea eskatzen badu, ba normala da, baina bai emakumeei eta bai gizonei. Lanak amatasuna atzeratu duela esan ohi da. Nik esango nuke lanak baino eragin handiagoa dutela pisuen prezioek. Azkenean, ama izatea erabakitzen duzu egonkortasun bat duzunean”.



Goiaz
Estensoro

Goxara enpresako buruetako bat da. Eguneke Zentroen kudeaketaz eta etxez etxeko laguntzaz arduratzen dira. 45 laguneko enpresa bere bazkide Amaya Ayalarekin batera darama. 3, 4 eta 6 urteko hiru alabaren ama da.

“A veces resulta duro llegar a casa y encontrarte a las niñas durmiendo”

“Nik hiru alaba ditut eta ahal dudana bezala moldatzen naiz. Senarrak txandan egiten du lan eta beraz, goizez lan egiten duenean bera arduratzen da arratsaldeetan haurrak zaintzeaz eta alderantziz. Ni ere nire lan orduak moldatzen ahalegin-tzen naiz. Hala eta guztiz, askotan itota aurkitzen naiz eta hor izaten dira beti aitona-amonak laguntza emateko prest.

Lanak pertsona gisa garatzera eraman gaitu, baina gaur egun, oraindik, etxeko antolakuntza emakumeak eramaten du nagusiki. Emakumea beti etxera begira dago. Eta bai, batzuetan gogorra da etxera iritsi eta umeak lokartuta harrapatzea”.



Edurne
Garin

Irurena galdaragintza enpresako gerentea da. Duela 22 urte sartu zen familiako enpresan eta bazkideak erretiratu ziren heinean, ardura bere gain hartu zuen anaiaren laguntzarekin. 3 urteko alaba du.

“Mi situación personal hubiese sido diferente de no haber estado al mando de la empresa”

“Enpresaren ardura hartu behar horrek nire bizitza erabat aldatu zuen hasiera batean behintzat. Egun osoa lanean eramaten nuen. Enpresa familiarra izate horrek oraindik ere lotura handiagoa sortzen du, zurea izango balitz bezala hartzen duzu eta. Arzoa alaba jaio zenean sortzen da. Honelako postu batean beti gainean egon beharra dago. Amatasun bajaran ere ordu batzuk etorzen nintzen. Nire kasuan, garai hartan, senarra ere noizbehinka kanpora ateratzen zen lanera eta ezin nuen berarekin kontatu. Garbi dago inolako laguntzarik gabe ezin izango nukeela dena aurrera eraman eta horrelakoetan aitona amonen, ahizparen... laguntza guztiak ondo etorri zaizkit eta hala eta guztiz, askotan ezinean aurkitzen zara. Baina alderdi onak ere baditu. Honelako postu batean egoteak ematen dizun esperientzia oso aberasgarria da. Beste edozein gizonezko bezala enpresa aurrera eraman dezakezula ikusteak oraindik ere jarraitzeko grina sortarazten dizu. Emakumea izateagatik nahiz eta lantegian bakarra izan, ez dit inolako arazorik sortu. Agian orain dela 22 urte, hasi berritan bai, baina ez emakumea izateagatik baizik eta gaztegia ikusten nindutelako”.

[Beasain]
egunez egun

Erlo, 1026 m.

Ernio, 1075 m.

Txindoki, 1346 m.

Aizgorri, 1528 m.

[Beasain]
egunez egun

Ehunmilak deporte y mucho más



IBILBIDEA



➔ **Mikel Valdivielso**
Ehunmilak ultratrail probaren bultzatzaile eta antolatzailea

El 16 de julio va a tener lugar en Gipuzkoa la prueba de montaña más dura de todos los tiempos. Los corredores recorrerán 167 km. y cruzarán 27 municipios de Gipuzkoa, haciendo cumbre en Txindoki, Izarraitz o Ernio. Un macroproyecto para el que movilizarán 1.500 voluntarios.

makroproiektu bat errealitate egiteko eta eskertzekoa da. Horregatik, gure asmoa da urtero antolatzea "Ehunmilak".

167 km. Mont Blanc-ekoak baino apur bat gehiago. Gainditzera joan zarete, gainera.

Zaila da oso zehatz-mehatz kilometroak kontatzea. Chamonixeko munduko probarik gogorrena da. Ikaragarriko antolakuntza du, sekulako partaidetza eta paisaia ikusgarriak. Baina ez daukagu arrazoirik inbidiarik izateko. Txindoki, Izarraitz, Ernio... altxor asko dugu. Gainera, gure ibilbidea seguruagoa da. Alpeetan 1.500 metroko altueran eguraldi txarra egiten badu... hemen, berriz, ia ezinezkoa litzateke uztailan proba bertan behera geratzea eguraldiarengatik.

Izen-ematea irekita dago. Nongo jendea animatu da batik bat?

%50 euskaldunak dira. Ibilbide luzerako 250 bat lagunek eman dute izena. Nik 300 bat-eko aurreikuspena egiten nuen eta ez gara urruti ibiliko. Ibilbide motzerako, berriz, oraindik gutxi daude baina bi hilabete falta dira. 1.000 lagunetan jarri dugu muga. Estatutik, Frantziatik, Portugalatik, e.a. etorriko da jendea. Baita Kataluniatik ere. Honetan katalanak gure aurretik doaz. Izena emateko epea apirilaren 15ean itxiko da.

Prestakuntza aldetik zer eskatzen du horrelako proba batek?

Ezin da bat-batean prestatu. Behar da ibilbide bat. Hau ez da bizpahiru hilabetez entrenatu eta Behobian ateratzea. Astakeria da baina erritimoa ez da hain altua. Nik, esaterako, gehiago sufritzen dut proba laburretan, dena ematera joaten naiz-eta. Diziplina behar da eta horretarako ondo etortzen da, niri behintzat, entrenatzaile baten laguntza.

Neurri batean, enbaxadore lana egiten ari zarete...

Bai, kirola egiteaz gain, herriak ezagutzeko aukera ematen du, sozialki lehen esan dudana osatzeko, turismoa bultzatzeko... Jendea hoteletan erreserbak egiten hasi da dagoeneko. Konnotazio asko ditu ekimen honek. Jendea ez zaio buruan sartzen nola garen gai 1.500 lagun mugiarazteko. Beasainen, 300 edo 400 bolondres behar ditugu eta elkarteak deika dauzkagu prest daudela laguntzeko esanez. Eta Beasaingo Udala ere ikaragarri ari zaigu laguntzen. Sekulako lana egiten ari gara eta oraindik egiteko dago baina gure helburua da jendea pozik uztea, mimoz tratatzea, buelta daitezen. Pentsa, forroetan 75.000 bisitatik gora izan ditugu. Mundu osoko jendea interesatu da.

➔ "Nuestro deseo es que la gente se vaya contenta y con ganas de volver, tratarla con cariño y dejarle un buen recuerdo".

➔ "No sólo es una prueba deportiva, sino toda una red social. Necesitamos 1.500 voluntarios y casi en todos los municipios por donde pasa la prueba tenemos ya completados los grupos de trabajo".

➔ "No tenemos motivos para envidiar el ultra-trail de Mont Blanc. Nosotros tenemos el Txindoki, el Izarraitz, el Ernio... un montón de tesoros".



Antolatzaileak bilera batean.

Ehunmilak bi hitzetan



Txemi Perez

Xabier Mendizabal

Unai Agirre

"Errekor bat. Egundokoa. Aukera bat gure ingurua ezagutzera emateko".

"Proba desberdin bat. Euskal Herri mailan, aurrenekoa"

"Proiektu handi bat. Eromena!"

Nolatan ekin zenion European erreferentzia den Mont Blanc-eko probaren antzeko bat antolatzeari hemen?

Urte eta erdi bat bada hasi ginela. Mundu honetan ibiltzen garentzat duela urte gutxi batzuk genuen aukera bakarra Mont Blanc-ekoa zen. Sekulako xarma du. Bi urtetan parte hartu nuen eta zera galdetzen nion neure buruari: guk, euskaldunok, dugun potentziala eta mendirako zaletasuna izanda, nola ez gara gai horrelako zerbait egiteko? Ideia aurrera eraman zitekeen edo, galdetza hasi nintzen eta lehenengo bileran lau lagun elkartu ginen geure kezka guztiekin. Orain, 16 edo 18 gara.

Kirol ekintza batetik haratago, sare sozial bat osatu duzuela diozu.

Hala da. 1.500 bat bolondres behar ditugu eta lasterketa igarotzen den herri gehienetan jada baditugu lantaldeak. Inondik eza gutzen ez genuen jendearengana jo behar izan dugu. Ez da erraza izan baina azkenean denetarik jendea gaude sartuta. Uste dut hori izan dela udal eta gainontzeko erakundeei atentzioa handiena eman diena. Erantzuna ikaragarria izan da, jendea bustitzen ari da. Pentsa, 300.000 euroko aurrekontua du lasterketak eta azpiegiturak Udalek uzten dizkigute.

Zerk eman dizue buruhausterik handiena?

Aurrekontua borobiltzeak, dudarik gabe. Horretan asko borrokatu behar izan dugu eta proba antolatu aurretik energia asko kendu digu. Enpresa babesleek euren konfidantza eman digute horrelako

Idazlehiaketa

Lumarekin maisu

El Ayuntamiento de Beasain organiza desde 1990 el concurso de literatura Idazlehiaketa para fomentar entre los alumnos la escritura en euskera. La entrega de premios ha tenido lugar recientemente. Aunque participan todos los centros educativos del municipio, nosotros hemos reunido a los beasaindarras que han resultado premiados. Imaginación y creatividad no les falta. Tienen futuro.

Aitor Irizar:**"Marigorringo baten saltsak kontatzen ditut".**2. saria. Prosa. F mailan.
"Marigorringoren abenturak".

"Mendian bizi den marigorringo baten istorioa bururatu zitzaidan. Halako batean herri batera joatea erabakitzen du eta han sartzen da haur baten oinetakoetan, amona baten boltsan... eta azkenean berriro mendira joatea erabakitzen du".

Andoni Mikelarena:**"Irakasle batek bertsoekiko zaletasun handia sartu digu".**1. saria. Bertsoa. E mailan.
"Beasaingo herria".

"Bertso eskolan ibiltzen naiz eta gainera, Arantxa Gerriko irakasleari asko gustatzen zaizkionez, afizio handia sartu digu. Eta beasaindarra izaki, Beasaingo herriari buruzko bertsoak egin ditut. Etxean ere jarraitzen ditugu".

Irati Ricón:**"Saritan ematen didaten diruarekin familia bazkaltzera gonbidatuko dut".**2. saria. Hitz lauz. D mailan. **"Portzelanazko malkoa".**

"Pantina baten istorioa kontatzen dut. Salgai dago aberatsentzat den denda batean eta pantina mordoa dituen haur baten eskuetan bukatzen du, hausten duten arte. Azkenean, berak nahi bezala, emakume txiro batek zakarrontzitik hartu eta bere alabari ematen dio. Egia esan, ez nuen irabazterik espero, zeren hiru alditan hartu dut parte aurretik. Saritan ematen didaten diruarekin familia bazkaltzera gonbidatuko dut. Gomendatuko nukeen liburu bat? Ba oraintxe "Cazadores de sombras" ari naiz irakurtzen".

Ametz Arrospide: "Sei bertso arratsalde batean idatzi nituen, kantatu oraindik ez".1. saria. Bertsoa. B mailan.
"Bizi baldintza txarretan".

"Bertso eskolan nabil azken bi urte hauetan eta uda pasatzera etortzen den Saharako haur batek hemen zer aurkitu duen kontatzen da saritu dizkidaten bertsoetan. Ez nuen saririk espero. Arratsalde batean idatzi nituen. Kantatu, ordea, ez ditut kantatu oraindik".

Martin Kortaberria: "Dezente gozatu dut ipuin hau idazten".1. saria. Prosa. E mailan.
"Misterioaren itzala".

"Dezente gozatu dut ipuina idazten. Uste dut errealitate hurbilago dagoela fantasiatik baino. Bere osaba ikertzaileari kasu bat argitzen laguntzen dion mutiko baten istorioa da. Norbaitek zehazten ez den herri bateko agintariari buruan eman eta burua puskatzen dio. Horik hasten da".

Ana Barbadillo: "Idazteak erlaxatu egiten nau".1. saria. Hitz lauz. B maila. **"Ohiko jendea".**

"Normalean denbora dudanean idazten dut. Erlaxatu egiten nau. Batzuetan esaldi soilak izaten dira, beste batzuetan ipuinak, nahiz eta sarritan bukatu gabe utzi. Lehiaketarako ideia bat nuen buruan baina larunbat batean, ogi bila ateratzera nindoala, bizitza monotonoa eramane eta beste batzuen inbidiaz bizi direnei buruz idaztea pentsatu nuen. Gomendatuko nukeen liburu bat? "La soledad de los números primos".

Maria Zuazola: "Ez nekienez zer idatzi, Alakranaren gertakizunetan oinarritzea pentsatu nuen".1. saria. Prosa. F mailan. **"Alakrana".**

"Idatzi ohi dut. Katekesian hasi nintzen. Amari-eta gutunak idazteko esaten ziguten eta hala hasi nintzen. Oraingoan, ez nekien zertaz idatzi eta gertakizun bat ondo etorriko zitzaidala pentsatu nuen. Horrela, "Alakranaz" idatzi dut. Istorioa errealitatean oinarrituta dago. Alabak bere aita marinelari opari bat eskatzen dio. Eta azkenean, konturatzen da oparirik onena aita etxera bueltatzea dela".

Maitane López: "Idazlana egitea gehiago kostatzen zait, nahiago dut bertsoa".2. saria. Bertsoa. E mailan. **"Gabonak".**

"Nik Gabonen inguruko koplak egin ditut. Idazlan bat egitea gehiago kostatzen zait baina aurten bertsoa egin zitekeenez, koplak idaztea pentsatu nuen eta Gabonak pare-parean tokatu zirenez, ba... Aurkezteko bi egun falta zirela esan ziguten bertsoak egin zitezkeela, aurreko edizioetan prosa eta poesia lanak baino ez baitzituzten onartzen. Hori bai, erabaki dut zer egin diruarekin. Gurasoek uzten badidate, behintzat, aurreztuta dudarekin eta ematen didatenarekin Nintendo DS bat nahi dut".

Amaia Erauskin: "Paper batean idazten ditut burura etortzen zaizkidan ideiak".2. saria. Prosa. E mailan.
"Kolorea galdu zueneko".

"Normalki burura etortzen zaizkidan ideiak paper batean idazten ditut. Idazlanerako, txakur belarrihandi bat hartu nuen protagonista gisa. Zirkoan egiten du lan eta hango ostrukari ez zaio gustatzen herria, kolore askotakoa baita. Azkenean, sorginkeria bati esker ostrukak lortzen du dena txuri-txuri geratzea eta txakurrak bere belarri handiei esker koloretsu bihurtzen du berriro herria".

Irene Kortaberria: "Amamari dedikatu diot ipuina".3. saria. Prosa. F mailan.
"Astebukaera bat amamaren etxean".

"Amamak zaintzen nauenez askotan, harreman berezia dut berarekin eta esan nion berari dedikatuko niola ipuina. Istorioko protagonistak ezin du amamaren etxean lorik hartu eta uzten ez dion toki batera sartzen da: satora. Gela osoa koadroz beteta dagoela ikusten du eta haietako bat, asko gustatuta, barrura sartzen da... azkenean, laguntasunari buruzko lan bat da".

Oihane López: "Uste dut gauza hobeak idatzi ditudala".3. saria. Prosa. E mailan.
"Gamelu baten gabonetako ipuina".

"Ez nuen espero irabaztea. Uste dut gauza hobeak idatzi ditudala. Gamelu baten inguruko ipuina idatzi dut eta graziosoa da bera, ukitu komikoa eman nahi izan diot. Jesus bisitatzea jotzen da eta beste bi erregeak ezagutzen ditu... Dena dela, badakit zer egin dirusariarekin: ahizpak jaunartzea egiten du aurten eta opari bat erosiko diot".

Iñigo Pérez: "Euskaraz fantasiako liburuak eta itzulpenak irakurtzen ditut".1. saria. Hitz lauz. D mailan. **"Arimen zubia".**

"Tarteka idazten dut. Irakurri ere bai. "La sombra del viento" gomendatuko nuke. Euskarazkoetan, berriz, fantasiakoak irakurtzen ditut edo itzulpenak. Oraingoan "Arimen zubia" aurkeztu dut. Marjinatu bati hiltzerakoan bururatzeko zaitzion gauzetaz hitz egiten da, berragiztatzeaz, e.a..

BESTE SARITUAK

• Irati Arrieta. 1. saria. Olerkia. "Loturaren haustura".
• Beñat Irastorza. 1. saria. Prosa. "Amalia".
• Sheila Salamanca. 2. saria. Prosa. "Sophie".

• Nerea Murua. 3. saria. Prosa. "Iraganeko arrastoen bila".
• Sara Insausti. 3. saria. Prosa. "Atzo bezala".
• Iñaki Dorronsoro. 2. saria. Prosa. "Garai gogorrak".

• Ainhoa Miguel. 3. saria. Prosa. "Freedom".
• Joanes Etxaide. 2. saria. Bertsoa. "Jostailu apurtua".
• Irati Unanue. 3. saria. Prosa. "Lamien perla".

• Maite Crehuet. 1. saria. Bertsoa. "Ikastolako pasadizoak".
• Oier Begiristain. 2. saria. Bertsoa. "Biritxiak".

[Beasain]
egunez egunBeasaingo Udaltzainen lana
zenbakitan

2009ko datuak

	Trafiko arloa
26	zirkulazio istripu
4	alkoholemia proba
50	abandonatutako ibilgailu
22	garabi zerbitzu
	Zerbitzu bereziak
1778	Ikastetxeetako sarrera-irteeretako kontrol
59 egun 199 aldiz	Joan Iturralde eta Kale Nagusiaren arteko bidegurutzeko trafikoaren kontrola
20	kirol proba
30	herri jai
109	pasoko eskaleri laguntza
94	matxuratutako ibilgailuri laguntza
62 egun 102 aldiz	hiletak
39 egun 65 aldiz	trafiko kanpaina
2	txakur eraso
	Administrazioa eta isunak
1694	udal isun
10	ibilgailutan zigilua
22	salaketa akta
99	aurkitutako dokumentuen izapidetzea
369	bide publikoetako kalteen inguruko abisua
	Udal ordenantzak
7	baimendu gabeko obrak
109	bide publikoaren okupatzea
20	abandonatutako txakurrak

IKASTETXEEKIN
ADOSTUTAKO IBILBIDEAK:

Ezkierdi frontoia / Lizeoa
Igartza-Oleta / La Salle ikastetxea
Bideluze / Murumendi Ikastetxea

"Eskolara oinez" programa martxan jarri zen lehenengo eguneko argazkia. Alkateak eta zinegotziek lagundu zieten ikasleei ibilbide ezberdinetan.

Eskolara oinez programa martxan da otsailaren 23tik



➔ Rosa Aurkia
Ekimenaren
arduraduna

Adi lurreko oinei!

Udalak eskoletara eramaten duten oinak marraztu ditu herriko hainbat gunetan 6 eta 12 urteko ikasleak gurasoen laguntzarik gabe joan daitezzen klasera, auto ilarak saihestuz eta mugikortasun iraunkorra sustatuz.

El Ayuntamiento, fiel a su política de impulso a la movilidad sostenible, ha puesto en marcha el proyecto "Eskolara oinez" dirigido a alumnas y alumnos de Educación Primaria. Se trata de marcar diferentes trayectos por los que llegar a los centros educativos garantizando al máximo la seguridad de los pequeños de modo que puedan acudir a clase sin el acompañamiento de un adulto y evitar así la aglomeración de vehículos en los alrededores de los centros. El éxito dependerá del esfuerzo y la colaboración de padres, profesores y alumnos. Según Rosa Aurkia, de la empresa Laia, encargada de llevar a cabo el proyecto, "todos los trayectos han sido consensuados con los centros y hemos señalizado el camino trasladando todos los cruces a puntos donde hay pasos de cebra o semáforos. Además, un policía municipal dirigirá el tráfico a primera hora de la mañana en los puntos más conflictivos, de momento, en la subida a Telefónica". Son los propios centros escolares quienes informarán a los padres de esta iniciativa y los que definirán el funcionamiento del día a día, con el fin de evitar al máximo los malos humos y los atascos.

Belen Arkarazo, Alkartasuna Lizeoa

"Oso proiektu polita da, mundiala, baina bere zailtasuna badu aurrera eramateko. Denok presaka bizi gara eta horrek errealitate jakin batera eramaten gaitu. Batzuk, oso hurbil bizi arren, autobusez etortzen dira ikastetxera. Saiatu, saiutuko gara proiektuak arrakasta izan dezan. Aztertzen ari gara nola jarri praktikan, baina denbora behar dugu horretarako ere".

Josebe Irastorza, Andramari Ikastola

"Gu duela hiru urte hasi ginen gauza bera egiten. Foru kaletik etortzen ziren haurrak eta hemendik aurrera, Udalak eta ikastetxeek adostutako ibilbidea egiten hasiko gara, baina oraindik ez dugu formalki bide berri hau bultzatu. Ondo funtzionatu du gure kasuan. Haurrak biziago, erneago etortzen dira horrela".

Rosa Mari Montilla, Murumendi ikastetxea

"Murumendiko ikas komunitatea ados dago proiektuarekin eta ostegunetan egiten ditugun familia bile-retan gaia lantzen jarraituko dugu. Saiatu gara informazioa zabaltzen baina oraindik denei ez zaie iritsi, beraz, lehenengo erronka da denei hobeto proiektua ezagutaraztea, kontzientziatu eta anima daitezen".

Esther Irastorza, La Salle ikastetxea

"Guk ikastetxe bezala horrelako jarrerak bultzako ditugu eta horretan ari gara. Gurasoak, berriz, aztertzen ari dira eta oraindik ez dute erabaki bat hartu. Egia esan, gauza askotarako eskatzen diegu laguntza eta ez da erraza denera iristea. Edonola ere, aurretik ere batzuk bazuten taldeka, gurasorik gabe, eskolara etortzeko ohitura".



Zumadiko aparkalekua.

Kamioilariak badute aparkalekua

Gracias a la labor conjunta que han realizado las instituciones, el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento, los camioneros tienen ya un merecido aparcamiento en Zumadi. La zona, que estará cerrada con una barrera para limitar la entrada a otros usuarios, cuenta con 27 plazas de aparcamiento. Para gestionar de la mejor manera posible el aparcamiento, los camioneros han creado una asociación. Según el acuerdo firmado, el Ayuntamiento les cederá el suelo para un plazo de tiempo de cinco años prorrogables. El Ayuntamiento ha financiado el 30% del presupuesto. El resto ha corrido a cuenta del ente foral y el Gobierno Vasco.

Kamioilarien iritzia**Armando Dos Santos**

"Illegalak sentitzen ginen lehen, aparkatzea debekatuta zegoen lekuetan uzten genuen eta kamioia, ez genuen beste aukerarik. Oso gustura gaude baina elkarlanean aritu behar dugu aparkaleku berria guztion artean ongi zaintzeko".

Imanol Bereziartu

"Aurrera pauso handia ekarri du aparkaleku berriak. Lehen arazo asko izaten genituen tokia aurkitzeko, inguruko gunetara joan behar izaten genuen. Lapurretak ere gertatu izan dira. Orain, berriz, guztiz kontrolatuta dagoen leku pribatua dugu".



Kamioilarien ordezkaria eta alkatea hitzarmena sinatzen.

Juan Manuel Jorge

"Estamos muy contentos. Este aparcamiento es un avance y una tranquilidad para nosotros. Antes aparcábamos de mala manera, perjudicando a gente del pueblo. Después de una jornada dura de trabajo, resultaba agotador tener que dar vueltas para aparcar".

Ba al zenekien...

...Beasainen erroldatuta 13.715 lagun daudela?

Hay 1.380 ciudadanos extranjeros. En 2009 han nacido 194 niñas y niños. Han fallecido 76 personas. La franja de edad con mayor población en hombres es de entre 35 y 41 años. En mujeres, de entre 31 y 35 años.

...Beasaingo airearen kalitatea ona dela?

La calidad del aire de Beasain no supera ningún valor límite de media. Según los datos analizados por el Hospital de Zumárraga a través del Programa INMA, el aire de Beasain presenta 11,99 microgramos/m³ de PM 2,5 (partículas contaminantes) de media anual, cuando el valor límite es de 25 microgramos/m³.